

Zein duzu  
BERRIaren urteko azalik  
gogokoena?



ATZEKOZ AURRERA

## Sagarraren malabaristak, eta txotxaren trapezistak

Gure Zirkuko kideek abiatu dute txotx garaia Astigarragan. Sagardo Berriaren Egunak sudur gorri kolorea izan du aurten.

Umorez hasi da txotx denboraldia

Gure Zirkuko kideak, Alorrenea sagardotegian, txotx garaiaren hasiera ekitaldian. JON URBE / FOKU



**Enekoitz Telleria Sarriegi**

ASTIGARRAGA - 2025EKO URTARRILAREN 15A - 17:15

---

## BIZIGIRO

pailazo. Su-irensleak, ezpata-irensleak, eta txuleta-irensleak. Zer da sagardotegia, ez bada zirku erraldoi bat? Iker Galartzak berak ere hala esan die sagardogileei: «Ez gara horren diferenteak: guk lan egiten dugu jendeak ondo pasatzeko, eta zuek ere bai. Egunik onena ez denean ere, beti irribarre bat gordeta eduki behar dugu datorrenarentzat». Gordea zuten irribarrerik onenarekin abiatu dute Gure Zirkuko kideek txotx garaia Astigarragan (Gipuzkoa): sudur gorri kolorea duen horrekin.

Iker Galartza, Joseba Usabiaga eta Lur Aranburu aritu dira zirkuko kideen izenean aurkezpenean. «Ez dakit merezimendu osoz gauden hemen, baina bai nortasun handiko jendea garela, euskaldunak garela, eta sagardozeak», esan du Galartzak hitza hartu duenean. «Urduri eta hunkituta» daude hirurak. «Entseatu dugu. Gauzak serio hartzen saiatzen gara, umorea egiten badugu ere», azaldu du Usabiagak. «Ondarroa inguruan ez daukagu sagardotegi asko, baina zirkuan hasi naizenetik, sagardoa eguneroko zerbait bihurtu da, lankideek oso gustura edaten dute eta. Mahaiaren inguruan zirkuko familiarekin eta maite dudan jendearekin jartzeko aukera bat bihurtu da sagardoa», esplikatu du Aranburuk.

Zenbat dakite Gure Zirkuko kideek sagardoari buruz?



---

## BIZIGIRO

aurten go gonbidatu nagusiak. Aitor Beraza kazetariak aurkeztu du Ekitaldia, Agn Laburu eta Joanes Illarregi aritu dira bertsotan, eta Ana Goitia umoristak sartu dio txotxari ziria: «Beste pailazo bat behar omen zuten, eta ni etorri naiz». Alorrenea sagardotegiko Jokin Mariezkurrenak xehatu ditu sagardoari buruzkoak: «Hirugarren upela da zabalduko duguna, familiaren sagastiko sagarrekin egina. Fruta usainekoa, eta ahoan luze joango dena. Bigarren tragoa egiteko gogoia piztea espero dut». Euskal Sagardoa jatorri izeneko 1.300.000 litro izango dira aurten.

### Gezamina landatu dute

Erribera kanpoaldean landatu —lurrez estali— dute hiru gonbidatuek sagarrondoa: gezamin bariatatekoa. «Sagar gorriak beharrean, sudur gorriak emango dituen», Laburuk bertsotan esan duenez. Alorrenea sagardotegira joan aurretik egin dute gonbidatuek BERRIaren testa. Zer da patsa? Hirurak mutu. Usabiaga: «Izerdia?». Kale. Sagarra jotakoan gelditzen diren sagar zatiei deitzen zaie horrela. Zer da ziria? Galartzak asmatu du: «Zuloa, txotx egiten dugu ziritik». Eta manttoni? Usabiaga: «Hor harrapatu nauzu». Galartza: «Ideiarik ere ez». Sagar bariatate bat da. Eta mozolua? Galartza: «Beste bariatate bat?». Bai. Aranburu: «Ondarroan mozolua *mozolue* da». Galartza: «Sagar motelxeagoa izango da, agian».

13:30 pasatuta hasi dira txalaparta doinuak Alorrenean. Urteetan zeregin horretan aritutako Ximon Goikoetxea zenari omenaldi hunkigarria egin diote lehendabizi, eta haren semeak eta bilobek hartu diote lekukoa. Sagar dantzarekin egin dute agurra lehenengo, eta sokadantzan parte hartzeko gonbidapena egin dute hurrena. Eskutik helduta eta elkarrekin sartu dira denak sagardotegian, txingarren epelean. Hara non, Poxpolo eta Don Martin dira eta! Zirku bat dute atzetik segika, nomada eta euskalduna, begiak diz-diz dituen, eta sudur gorri kolorea duena. Bete dute edalontzia sagarraren malabaristek, eta txotxaren trapezistek, eta esan dute: «Gure sagardo berria!».

---

## GAIK

Bizimoduak

Gastronomia

Ekonomia eta finantzak

Eraldatze industriak

## Bi hamarraldi. Milaka aldi.

Hogei urtez, milaka euskaldunen babesari esker, aldian aldiko kazetaritza independente eta profesionala egin ahal izan dugu. Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure ekarpena

### IRUZKINAK

Ez dago iruzkinik

Irukin bat egin

ORDENATU

DATA



### Gipuzkoa egunero sortzen da.

Pertsonen ongizate integral handieneko  
lurraldea izatea da gure asmoa.

---

## INTERESGARRIA IZANGO ZAIZU



### Hezkuntza Sailak 140.000 euroko isuna jarri dio Zarauzko ikastolari

IRATI URDALLETA LETE

---

### Era mingarrian galdu du Athleticek Istanbulen

JON ESKUDERO

## BIZIGIRO



## Erorien Monumentua

Boletoa 5c  
Zenbaki  
osoa 35c  
hemen  
salgai!

# 30.000€

**SARI NAGUSIA · PRIMER PREMIO**

**2.000€** KO 7 SARI ZENBAKI  
BEREKO GAINONTZEKO SERIEENTZAT

**1.000€** SARITUTAKO BIGARREN  
ZENBAKI ETA SERIEARENTZAT



**Elhuyar** aldizkaria  
jakin-minak ez baitu mugarik  
.....  
Harpidetu zaitez!

4 zenbaki urtean,  
28 €-ren truke



**Benito Lertxundi:**  
«Nire ibilbidearen  
azken zatian  
doktrinak  
baztertzeraz jo dut»

GORKA EROSTARBE LEUNDA

«Jendeak geroko utzi  
ditu malkoak»

ORSOLA CASAGRANDE



**Juan Carlos Perez  
eta Jose Garate**  
**'Foisis':**  
«Anakronikoak  
ginen»

IÑIGO ASTIZ

Ab  
asl  
ab  
esl  
LEIRE

## Harpidetu Berriaren buletinetara

Mendia

Arratsaldekoa

Goizekoa

Badok

Astekaria

Kinka

Kazetaritza

Izena ematean privatutasun politika onartzen duzu.



Zure posta elektronikoa



